

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

373/2016 Foru Agindua, irailaren 12koa, onartzen duena Bittor Agirreurreta Murgia jaunaren izendapena, Aramaioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko

Azaroaren 9ko 71/2015 Foru Aginduaren bidez, Pedro María Odriozola Zubizarretaren izendapena egin zen Aramaioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko, lanpostu hori hutsik baitzegoen.

Udalak aldundi honi jakinarazi dio Pedro María Odriozola Zubizarretak 2016ko irailaren 4an lanpostuari uko egin dionez, izendapen berri bat egin behar dela.

Alkatearen abuztuaren 5eko 217/2016 Dekretuaren bidez, Bittor Agirreurreta Murgiaren izendapena proposatu zen aipatutako lanposturako.

Horren harira, adierazi behar da, ALHAOn (81. zk.) 2016ko uztailaren 18an argitaratutako iragarki bidez, udalak hamabost egun balioduneko epea ezarri zuela estatu osorako gaikuntzadun funtzionarioek lanpostua betetzeko behin-behineko izendapen eskaerak egin zitzaizten, eta epe hori igarota, ez da eskaerarik jaso.

Aldi berean, udalak ziurtatu du inguruko udalen idazkariekin harremanetan jarri dela, egiaztatze aldera haietakoren batek lanpostua betetzerik zuen, aldi baterako lan metaketa edo zerbitzu eginkizun bidez; eta haietako batek ere ez du onartu aukera bata zein bestea.

Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioentzako gordetako lanpostuak betetzea arautzen duenak, 30.1 eta 34. artikuluetan xedatutakoa ikusita (biei ekainaren 27ko 834/2003 Errege Dekretuak emandako idazkera kontuan hartuta), toki erakundeek bitarteko funtzionario izendatzea proposatuko dute lanpostuari dagokion azpieskalan eta kategorian jarduteko eskatutako titulazioaren jabe den pertsona, baldin eta ezinezkoa bada lanpostuak betetzea, ez dagoelako inor 30., 31. eta 32. artikuluetan xedatutako prozedurengatik (aldi baterako izendapena, lan metaketa edo zerbitzu eginkizunak) toki erakundeetan funtzionario horientzat gordetako lanpostuak betetzeko.

Autonomia erkidegoko organo eskudunak izendatuko du pertsona hori, espedientean egiaztatatu ondoren ezinezkoa izan dela estatu osorako gaikuntza duen funtzionario batek betetzea.

Idazkari-kontuhartzaile azpieskalarara sartzeko, eta horientzat dago gordeta 3. mailako gisa sailkatuta dauden udalen idazkari lanpostuak, besteak beste, Aramaioko Udalekoa, nahitaezkoa da Zuzenbide, Zientzia Politikoak edo Administrazioak, Soziologia, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, Ekonomia edo Aktuariotza eta Finantza Zientzietako lizentziaduna izatea.

Adierazi behar da foru aldundi honek ezin duela egun lanpostu horretarako estatu osorako gaikuntza duen toki administrazio funtzionariorik behin-behineko izendatu, ez baitu inor gaituta dagoenik eta izendatua izateko interesa duenik.

Era berean, goraxeago adierazitako moduan egiaztatatu da ez dela lan metaketa edo zerbitzu eginkizun bidez betetzerik izan.

Izendapena egite aldera, eta udalak bere lan poltsarik ez duenez, beste lan poltsa batzuetan, besteak beste Zarauzko Udaleko idazkarien lan poltsan, ageri diren pertsonekin harremanetan

jarri zen, eta Bittor Agirreurreta Murgiak onartu zuen aipatutako udalean idazkari-kontuhartzaile eginkizunetan aritzeko egin zitzaion eskaintza.

Era berean, espedientearekin batera datozen dokumentuen arabera, foru aldundi honek egiaztatuta du Bittor Agirreurreta Murgia zuzenbideko lizentziadun tituluaren jabe dela, Idazkari-Kontuhartzaileen azpieskalara sartzeko gaitzen duenetako bat, gorago esaten den bezala.

Horiek horrela, egoki jotzen da Aramaioko Udalak egiten duen izendapen proposamena onartzea.

Arabako Foru Aldundia da izendapen hori egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskuduna, uztailearen 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren bost.1 xedapen gehigarrian eta apirilaren 12ko 7/2007 Legearen, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuarenaren, hiru.2 xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskumenak betez (52/1992 Foru Araua), haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Onartzea Pedro María Odriozola Zubizarretaren borondatezko ukoa eta hura Aramaioko Udaleko bitarteko idazkari-kontuhartzailearen kargutik kentzea, 2016ko irailaren 4tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Bittor Agirreurreta Murgia bitarteko funtzionario izendatzea, 2016ko irailaren 5eko eragin ondorioekin, Aramaioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko.

Hirugarrena. Izendapen horrek estatu osorako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioen bati lanpostu hori esleitu arte izango ditu ondorioak. Dena den, edozein unetan indargabetu ahal izango da bai Aramaioko Udalak hala eskatu duelako bai hura kargutik kentzeko legezko arrazoiren bat dagoelako.

Laugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Aramaioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea orobat berau ALHAOn argitaratzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 12a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ